

Bermeoko Euskararen Plan Estrategikoa

2018-2022

2018ko otsaila





Aurkibidea

2.

1. Sarrera	3
2. Zein da euskararen egoera Bermeon?	4
3. Plan Estrategikoaren helburuak.....	5
4. Lan-ildoak	6
5. Helburuak eta neurriak.....	14
6. Proiektu zehatzak.....	25
7. Eranskinak: parte-hartzaileak.....	28



1. Sarrera

Bermeoko Euskararen Plan Estrategiko berria

Bermeoko Udalak urteak daramatza udalerrian euskararen erabilera bultzatzeko lanean. 2012. urtean, Euskararen Plan Estrategikoa onartu zuen eta, 2013. urtetik 2017. urtera, Planean jasotako ekimenak bideratzen aritu da.

Planaren indarraldia amaituta, 2017ko urte amaieran, diagnostiko baten bidez, udalerrian euskararen egoera zein den berriz ere aztertu eta 2018-2022 epealdirako Plan berria landu du.

Udalak plangintza batetik besterako epealdi hau baliatu nahi izan du hizkuntzaren inguruan gogoeta eragiteko. Era horretan, eta etorkizuneko marko berria ezartzeko asmoz, herriko eragileen eta herritarren iritzia eta ekarpenak aintzat hartu ditu.

Plan berria lantzeko, Euskararen Aktibazio Taldea eratu da, eremu desberdinetan euskararen alde lan egiten duten 16 herritarrek osatuta. Euskararen Aktibazio Taldeak egindako ekarpenak jasotzen dira txosten honetan aurkezten den Plangintzan. Euskararen Aktibazio Taldeak egindako lana, Euskararen Aholku Batzordeko kideekin kontrastatu eta aberastu da.






2. Zein da euskararen egoera Bermeon?

4.

Euskararen egoera Bermeon

2017an egindako diagnostikoak Bermeon euskararen egoera nolakoa den erakusten digu. Hona hemen datu batzuk:

- Bermeon euskarazko **hizkuntza-gaitasuna** % 72,2koa da. Ehuneko altua bada ere, Bermeotarren hizkuntza-gaitasunean beherakada egon da azken hamarkadetan.
- Bermeoko euskarazko hizkuntza-gaitasuna % 72,7koa izanda, espero daitekeen erabilera % 45,2koa da¹. Hala ere, kaleko hizkuntzen erabilera neurketak **erabilera** % 33,6koa dela esaten digu.
- Euskararen kale-erabilerak behera egin du azken urtetan, nabarmen.
- Egoera kezkagarria da adin-talde guztietan baina, batez ere, haur eta gazteen kasuan, kontuan izanda Bermeoko ikastetxeek D eredia eskaintzen duela. Gazteek osatzen dute euskara gutxien erabiltzen duen adin-taldea, helduekin batera. Emakumeek gizonak baino gehiago hitz egiten dute euskaraz kale-neurketaren arabera.
- 1991n bermeotarren % 71ren **lehen hizkuntza** euskara zen, 2001ean %67rena eta 2011n, berriz, %58arena.
- Bermeon, **etxean erabiltzen den hizkuntza** nagusia euskara da. Biztanleen % 44k erabiltzen du etxean euskara, % 37,9ak gaztelania, % 15,8ak bi hizkuntzak eta % 2,2ak beste hizkuntzaren bat. Etxean ere, euskararen erabilerak behera egin du azken urteetan, eta gaztelaniarenak, ordea, gora.



¹ Soziolinguistika Klusterrak kalkulatu egiten du zein izan daitekeen herri jakin batean esperotako euskararen erabilera, herritarren hizkuntza-gaitasuna kontuan hartuta.



3. Plan Estrategikoaren helburuak

Zer da Euskararen Plan Estrategikoa?

Udalerrian euskara sustatzeko estrategiak jasotzen dituen dokumentua da Euskararen Plan Estrategikoa; hurrengo urteetan, Bermeon euskara indartzeko herritarrek eta Udalak izango duten lanerako tresna.

Euskararen Plan Estrategikoaren helburuak

Bermeoko Udalak honako helburuak lortu nahi ditu Euskararen Plan Estrategiko berriarekin:

- Euskararen aktibazioan eragingo duten aliatuak topatzea eta euren arteko sarea sortzea.
- Gogoetatatik euskararen aktibazio-ekintzetara salto egitea.
- Euskara ahal bezain beste erabiltzen ez duten euskaldunak euskarara erakartzeko estrategia berriak diseinatzea.
- Euskararen aldeko babes soziala lortzea.
- Euskara ez dakiten herritarrak euskarara erakartzea, horretarako baliabideak emanaz.
- Herritarren eta udal-ordezkarien artean elkarlanerako gune berriak irekitzea, eta parte hartzeko kultura bultzatzea.
- Euskara Udalean zeharkakotasun osoz lantzea; udaleko sail guztien ardura izatea.



Bermeon euskararen erabilera, gaitasuna eta atxikimendua handitzea izango da Euskararen Plan Estrategikoaren helburu nagusia.



4. Lan-ildoak

6.

Euskararen Plan Estrategikoaren lan-ildoak

Hauek dira herritarrek eta Udalak, elkarrekin, lehenetsitako lan-ildoak, euskararen erabileraren aldeko aurrerapausoak emateko:



1. Euskararen transmisioa indartzea



2. Euskararen aldeko hizkuntza-ohiturak aktibatzea



3. Kultur arloa indartzea



4. Arnasguneak berrindartzea



5. Ume eta gaztetxoengan eragitea



6. Arlo informalean eragitea



7. Erreferentzialtasuna lantzea



4. Lan-ildoak

7.

1. Euskararen transmisioa indartzea

Etxean eta familian, belaunaldiz belaunaldi transmititu izan da beti euskara Bermeen. Baina azken urteetan familia-ereduak aldatu egin dira: gero eta familia misto gehiago daude, hau da, guraso bat euskalduna da eta bestea erdalduna. Ondorioz, hizkuntzen erabilera aldatu egin da. Errealitate hori aintzat hartuta, euskararen transmisioa indartzea erronka garrantzitsua izango da hurrengo urteetan ere.



1.1. Transmisioaren garrantziaren inguruko gogoeta eragitea

1.2. Euskararen transmisioa bultzatzeko baliabideak eskaintzea



4. Lan-ildoak

8.

2. Euskararen aldeko hizkuntza-ohiturak aktibatzea



Bermeo herri euskalduna da, 10 herritarretatik 9k ulertzen dute euskaraz eta bakarrak ez du ulertzen; baina erabiltzeko orduan asko jaisten da euskara erabiltzen dutenen kopurua. Azken datuen arabera, 10etik 3k egiten dute euskara kalean, eta, gazteek eta helduek gutxien. Horretaz jabeturik, Bermeo euskalduna izaten jarraitzeko, euskaltzale guztiak aktibatzea behar-beharrezkoa da. Euskararen alde egotetik aktibaziora pasa beharra dago.

2.1. Herritarrek sentsibiltzatzea eta aktibatzea

2.2. Herritarren hizkuntza-ohituretan eragitea

2.3. Herritarren hizkuntza-gaitasuna hobetzea

2.4. Euskararen erabilera bultzatzeko baliabideak eskaintzea

2.5. Arlo sozio-ekonomikoan eta elkartegintzan euskararen erabilera zahaltzea

2.6. Herriko hizkuntza-paisaia egokitzea

2.7. Euskararen erabilera sustatzeko lankidetzak bultzatzea



4. Lan-ildoak

9.

3. Kultur arloa indartzea

Haurrak eta gazteak dira euskarazko kulturaren hartzaile potentzial nagusiak. Horregatik, euskara erabiltzeko aukerak areagotu behar ditugu Bermeon, familia euskaldunei, gazteei eta haurrei lehentasuna emanaz. Beharrezkoa ikusten dugu, euskarazko kultur sormena bultzatzea eta euskarazko kultur eskaintza erakargarria lortzea.



3.1. Euskararen kultur kontsumorako aukerak indartzea

3.2. Euskarazko kultur sormena bultzatzea



4. Lan-ildoak

10.

4. Arnasguneak berrindartzea



Bermeotarrok euskaraz lasaitasunez berba egiteko guneak behar ditugu herrian. Hau da, kale-bizitzan, auzoan, familian, lagunartean zein lanean euskaraz aritzeko guneak eta aukerak sortzea, euskara lasaitasunez erabiltzeko eta euskarak arnasa hartzeko.

4.1. Herriko arnasguneen mapa egitea eta horiek indartzea

4.2. Herri mugimendutik euskaraz kudeatutako guneak bultzatzea

4.3. Arnasgune soziofuntzional berriak eratzea



4. Lan-ildoak

11.

5. Ume eta gaztetxoengan eragitea



Ume eta gaztetxoek euskara naturaltasunez erabil dezaten, zor diegu euskara gustuko ekintzetan erabiltzeko eskaintza.

Bermeoko ikastetxeek D eredua eskaintzen dute, eta, horren jarraipena aisialdira zabaltzeko behar dugu, alegia, alor informalago eta gustukoenetan euskara naturaltasunez erabiltzeko aukera.

Hortaz, ume eta gaztetxoen etorkizuna euskaraz irudikatu eta prestatu behar dugu.

5.1. Ume eta gaztetxoei zuzendutako euskarazko aisialdi-eskaintza osoa euskaraz izatea



4. Lan-ildoak

6. Arlo informalean eragitea

Arlo informalean, koadriletan, tabernetan, jaietan sortzen diren hizkuntza-ohituretan eragin nahi dugu. Esparru informalean portaera linguistiko ez gidatua (bat-batekoa) nagusitzen da eta, beraz, arlo informala euskalduntzeko, herritarren hizkuntza-ohituretan eragin beharra dago. Herritarrek euskara aisialdiarekin, gozamenarekin, atsedenarekin, parrandarekin ere lotzea gura dugu, ez bakarrik alor formalarekin. Horrela, euskara ere komunikaziorako hizkuntza izan dadin, eta presentzia izan dezan giroan (ekitaldiak, musika, karteleria, menuak, etab.).



6.1. Hizkuntza-ohituretan eragiteko ekimenak bultzatzea koadrila eta lokaletan

6.2. Tabernetako giroa euskalduntzea




4. Lan-ildoak

13.

7. Euskararen erreferentzialtasuna lantzea

Belaunaldi berrien hizkuntza ohiturei begira, euskararen erreferenteak oso garrantzitsuak dira. Beharrezkoa da gizartearen esparru desberdinetan, euskarazko ereduak sortzea eta eredu horiek herritarrei ikustaraztea. Bermeotarrentzat eredu izan daitekezen pertsonekin edota talde erreferenteekin lan egingo dugu, euskarari balio eta prestigio handiagoa emateko.



7.1. Herriko erreferente euskaldunak identifikatzea eta bultzatzea

7.2. Kanpoko erreferentzia euskaldunak herrian ikustaraztea

7.3. Euskararen erreferentzialtasuna indartzea sare sozialak erabiliz



5. Helburuak eta neurriak

Atal honetan, lan-ildoak lantzeko helburu zehatzak, neurriak eta neurri horiek aurrera eramateko arduradunak jasotzen dira.

1. EUSKARAREN TRANSMISIOA INDARTZEA			
HELBURUAK	NEURRIAK	ARDURADUNAK	URTEA
1.1. Transmisioaren garrantziaren inguruko gogoeta eragitea	1. Gurasoak eta familiak euskararen transmisioaz sentsibilizatzea	Euskara	2018-2022
	2. Bizkaian euskararen transmisioa familia bidez zer nolakoa den ezagutzea, egiten den lana ebaluatzea eta hobetzeko oinarriak zehaztea	Euskara	2018
	3. Guraso berriengan familia bidezko transmisioaz hausnarketa eragitea	Euskara	2018-2022
1.2. Euskararen transmisioa bultzatzeko baliabideak ezartzea	4. Oinarrizko kantutegi eta herriko lexiakoaz osaturiko corpus txiki bat sortzea, jasoketa, trebaketa eta istorien egituratze-lanaren bidez	Euskara	2018-2019
	5. Guraso eta seme-alaben arteko euskararen erabilera indartzea eta kultur transmisiorako guneak sortzea, horietan euskararen transmisioa bermatzeko ekimenak martxan jarri jolasguneetan, daudenetan eta sortuko direnetan.	Euskara Alkatetza	2018-2022
	6. Belaunaldien arteko ahozko transmisioa indartzea, familietako eta herriko historia, ipuinak, eta kantuak berreskuratuz eta gaztetxoak herriko historiaz jabe eginez, Ipuin Lapiko egitasmoaren bidez.	Euskara	2018-2019
	7. Euskararen transmisioari buruzko informazioa eta baliabideak eskaintzea	Euskara	2018-2022
	8. Transmisio naturala indartzea, Bermeoko euskarari indarra ematea, sustraiak eta identitatea balioan jarri.	Euskara	2018-2022



5. Helburuak eta neurriak

15.

2. EUSKARAREN ALDEKO HIZKUNTZA-OHITURAK AKTIBATZEA			
HELBURUAK	NEURRIAK	ARDURADUNAK	URTEA
2.1. Herritarrak sentsibilizatzea eta aktibatzea	9. <i>Euskaraldia, 11 egun euskaraz aurrera eramatea</i>	Euskara Merk., Sust. eta Turismoa Alkatetza Kultura eta Hezkuntza Gazteria Partaidetza	2018-22018-2022
	10. Euskararen Aholku batzordea elkarlanerako eta parte hartzeko gunea izatea	Euskara	2018-2022
	11. Euskara Sailak egiten duen lana herrian ikustaraztea	Euskara	2018-2022
	12. Herritarrak sentsibilizatzea, epaitegiekiko harremanetan, euskara erabiltzeko	Euskara	2018-2022
2.2. Herritarren hizkuntza-ohituretan eragitea	13. Hezkuntza komunitatean oinarritzko soziolinguistika kontzeptuak landuz, euskararen erabileraren inguruko sentsibilizazioa areagotzea	Euskara Kultura eta Hezkuntza	2018-2022
	14. Helduen euskalduntzean soziolinguistika kontzeptuak landuz, euskararen erabileraren inguruko sentsibilizazioa areagotzea	Euskara	2018-2022
	15. Ume eta gurasoen arteko hizkuntza-ohituretan eraldaketak eragitea, tailerren bidez	Euskara Kultura eta Hezkuntza	2018-2022



5. Helburuak eta neurriak

16.

	16. Jendaurrean lan egiten den lekuetan euskara erabiltzea sustatzea	Euskara Merk., Sust. eta Turismoa Berdintasuna	2018-2022
	17. Kalinpanen bidez euskara herriko arlo guztietara zabaltzea	Euskara Kirol Patronatua	2018-2022
2.3. Herritarren hizkuntza-gaitasuna hobetzea	18. Gaztetxo etorkinen hizkuntza-gaitasuna hobetzea, euskara-eskolen bidez	Euskara Gizarte Ongizaterako patronatua	2018-2022
	19. Etorkinen jendarteratzea euskara ikastearen bidez erraztea	Euskara Gizarte Ongizaterako patronatua	2018-2022
	20. Gurasoen hizkuntza-gaitasuna hobetzea, euskara-ikastaroen bidez	Euskara	2018-2022
	21. Euskara ikastea sustatzea, komunikazio-kanpainen bidez	Euskara	2018-2022
2.4 Euskararen erabilera bultzatzeko baliabideak eskaintzea	22. Euskaraz berba egiteko lekuak eta uneak eskaintzea, berbalagun egitasmoaren bidez	Euskara	2018-2022
	23. Gurasoei, umeei zein gazteei baliabideak eskaintzea, euskarazko produktuak ezagutaraztea eta euren kontsumoa sustatzea	Euskara	2018-2022
	24. Euskarazko komunikabideen presentzia eta hedapena diruz laguntzea	Euskara	2018-2022
	25. Euskara ikasleei ikasketa-prozesuan erraztasunak ematea	Euskara	2018-2022



5. Helburuak eta neurriak

17.

	26. Udalerriko hizkuntza-paisaia euskalduntzeko erraztasuna eskaintzea	Euskara Langileria eta prebentzioa Alkatetza Urigintza, Obra eta Ingurum. Zerbitzuak	2018-2022
	27. Gazteei erraztasunak ematea gidabaimena euskaraz lortzeko	Euskara Gazteria	2018-2022
	28. Udalaren ikastegietako ikasketa-materiala edo metodoa euskaraz izateko pausuak ematea	Euskara	2018-2022
2.5. Arlo sozio-ekonomikoan eta elkartegintzan euskararen erabilera zabaltzea	29. <i>Geurien be bai</i> egitasmoa garatzen jarraitzea: enpresak, elkarteak, gazteak, gurasoak...	Euskara Behargintza Merk., Sust. eta Turismoa Berdintasuna	2018-2022
	30. Arrain Azokan euskararen erabilera gora egiteko neurriak hartzea	Euskara Merk., Sust. eta Turismoa	2018-2022
	31. Merkataritzan euskararen erabilera areagotzeko baliabideak eskaintzea: itzulpenak, kartelak, menuak...	Euskara Behargintza Merk., Sust. eta Turismoa	2018-2022
	32. Administrazioekiko harremanak euskaraz izan daitezen, herritarrak eta finantza-entitateak sentsibilizatzea	Euskara	2018-2022
2.6. Herriko hizkuntza-paisaia egokitzea	33. Kale-izenak nazioarteko arauen arabera moldatzea	Alkatetza Euskara	2020
	34. Ostalaritzako eta merkataritzako hizkuntza-paisaian euskararen erabilera bultzatzea	Euskara Behargintza Merk., Sust. eta Turismoa	2018-2022



5. Helburuak eta neurriak

18.

	35. Merkataritza-azoketan euskararen erabileraren inguruko neurketak egitea eta euskara sustatzeko ekimenak martxan jartzea	Euskara Behargintza Merk., Sust. eta Turismoa	2018-2022
2.7. Euskararen erabilera sustatzeko lankidetzak bultzatzea	36. Soziolinguistika Klustarraren egitasmoetan parte hartzea	Euskara	2018-2022
	37. UEMako bazkide izatea	Euskara	2018-2022
	38. Garabide Elkartarekin batera hizkuntza-lankidetzak proiektuak sustatzea	Alkatetza Euskara	2018-2022



5. Helburuak eta neurriak

19.

3. KULTUR ARLOA INDARTZEA			
HELBURUAK	NEURRIAK	ARDURADUNAK	URTEA
3.1. Euskararen kultur kontsumorako aukerak indartzea	39. Umeentzako eta gazteentzako kultur eskaintza handitzea: antzerkia, ikuskizunak	Kultura eta Hezkuntza	2018-2022
	40. Kultur eskaintzaren inguruko komunikazioa hobetzea	Kultura eta Hezkuntza	2018
	41. Umeak dauden eremu publikoetan telebista euskaraz jartzea	Euskara	2018-2022
	42. Euskal Herriko antzerki konpainiei Bermeon lekua egitea	Kultura eta Hezkuntza	2018-2022
	43. DBH4ko gaztetxoei euskaraz irakurtzeko baliabideak eskaintzea	Euskara	2018-2022
	44. “Gu ere bertsoan” programa eskaintzen jarraitzea	Gazteria	2018-2022
	45. LHko ikasleei ikuspegi hezitzailea duten eta euskaraz diren baliabideak eskaintzea	Kultura eta Hezkuntza Euskara	2018-2022
3.2. Euskarazko kultur sormena eta zaletasuna bultzatzea	46. Euskarazko literatura ezagutarazi eta irakurtzeko ohitura zabaltzea, Irakurleen txokoaren bidez	Liburutegia Euskara	2018-2022
	47. Kultura alorreko sorkuntza lanari bidea ematea, antzerki tailerraren bidez	Euskara	2018-2022
	48. Herriko taldeen euskarazko diskak diruz laguntzea eta horien zabalkudean egiteko laguntza eskaintzea	Kultura eta Hezkuntza Gazteria	2018-2022
	49. Euskarazko proiektu artistikoak bultzatzea	Kultura eta Hezkuntza	2018-2022
	50. Euskaraz irakurtzeko ohitura zabaltzea herritarren artean	Alkatetza Euskara	2018-2022
	51. Zinema euskaraz ikusten zaletzea, merkaturatzen diren filmak areto komertzialean eskainiz	Kultura eta Hezkuntza Gazteria Euskara	2018-2022



5. Helburuak eta neurriak

4. ARNASGUNEAK BERRINDARTZEA			
HELBURUAK	NEURRIAK	ARDURADUNAK	URTEA
4.1. Herriko arnasmuneen mapa egitea eta horiek indartzea	52. Herrian dauden arnasmuneak identifikatzea	Euskara	2018
	53. Arnasmuneak indartzea	Euskara Kultura eta Hezkuntza	2019-2022
4.2. Herri mugimendutik euskaraz kudeatutako guneak bultzatzea	54. Herriarrek sustatutako kultur mugimendua laguntzea, Gernikako Astraren ereduari jarraituz	Euskara Kultura eta Hezkuntza Gazteria Partaidetza	2018-2019
4.3. Arnasmune soziofuntzional berriak eratzea	55. Euskal Gunea ezagutaraztea eta kanpoaldearen itxura txukuntzea	Euskara Urigintza, Obra eta Ingurum. Zerbitzuak	2018-2019



5. Helburuak eta neurriak

5. UMEENGAN ETA GAZTETXOENGAN ERAGITEA			
HELBURUAK	NEURRIAK	ARDURADUNAK	URTEA
5.1. Ume eta gaztetxoei zuzendutako euskarazko aisialdi-eskaintza osoa euskaraz izatea	56. Ume eta gazteen euskararen erabilera areagotu, kirol-elkarteekin lan eginez: futbola, eskubaloia, arrauna...	Kirol Patronatua Euskara Gazteria	2018-2019
	57. Ume eta gazteei zuzendutako kirol eta aisialdiko eskaintza osoa euskaraz izatea	Kirol Patronatua Euskara Gazteria	2019
	58. Aisialdi talde bat sortzea, umeen artean euskararen erabilera bultzatzeko	Gazteria Kultura eta Hezkuntza Partaidetza Euskara	2018-2019
	59. Institutuarekin lanketa sakona egitea euskararen erabileraren ingurukoa	Kultura eta Hezkuntza Euskara	2018-2019



5. Helburuak eta neurriak

6. ARLO INFORMALEAN ERAGITEA			
HELBURUAK	NEURRIAK	ARDURADUNAK	URTEA
6.1. Hizkuntza-ohituretan eragiteko ekimenak bultzatzea koadrila eta lokaletan	60. Euskara informalaren erabilera indartzeko kanpainak martxan jartzea	Euskara Gazteria	2018-2019
	61. Berba-sarea egitasmoa kuadriletara eta lokaletara zabaltzea	Euskara Gazteria Partaidetza	2018-2019
	62. Euskararen aldeko gazteen taldeei babesak ematea	Gazteria Euskara	2018-2022
6.2. Tabernetako giroa euskalduntzea	63. Tabernariekin elkarlanean aritzea, tabernetako giroa euskalduntzeko	Euskara Merk., Sust. eta Turismoa	2018-2022
	64. Produktuak eta eskaintzak euskaraz izatea	Euskara Merk., Sust. eta Turismoa	2018-2022



5. Helburuak eta neurriak

23.

7. EUSKARAREN ERREFERENTZIALITASUNA LANTZEA			
HELBURUAK	NEURRIAK	ARDURADUNAK	URTEA
7.1. Herriko erreferente euskaldunak identifikatzea eta bultzatzea	65. Eskoletan, eskolaz kanpoko ekintzak eskaintzen dituzten begiraleak kontzientziatzeko saioak antolatzea	Euskara Gazteria	2018-2019
	66. Eremu desberdinetan (kultura, kirola, osasuna) egon daitezkeen herriko erreferente euskaldunak identifikatzea	Euskara Kultura eta Hezkuntza Kirol Patronatua Gazteria	2018-2019
	67. Euskararen alde lan egingo duen gurasoen taldea bultzatzea	Euskara	2018-2019
	68. Herritarrei garrantzia ematea, Udalaren bandera atera barik	Sail guztiak	2018-2022
	69. Bermeotar euskarari prestigioa emateko ekimenak martxan jartzea	Euskara	2018-2019
	70. Erdaldunen eta euskaldunen arteko zubiak eraikitzea	Euskara Partaidetza	2018-2019
7.2. Kanpoko erreferentzia euskaldunak herrian ikustaraztea	71. Ipar Euskal Herriko herritarrekin harremanak sortzea eta estutzea	Euskara	2019
	72. Beste herri euskaldun batzuekin sareak sortzea (Gernika, Ondarru...)	Euskara Gazteria	2018-2019
7.3. Euskararen	73. Euskara bultzatzeko youtube kanala sortzea	Gazteria Antol.eta Tek. Barriak	2018-2019



5. Helburuak eta neurriak

erreferentzialtasuna indartzea sare sozialak erabiliz		Euskara	
	74. Sare sozialetako euskararen erabilera aztertzea eta horren erabilera bultzatzea	Antol.eta Tek. Barriak Gazteria Euskara	2019-2020
	75. Teknologia berriak erabilita, moskeo kanpainak antolatzea	Euskara Gazteria Antol.eta Tek. Barriak	2019-2020
	76. Euskararen aldeko lorpenak ikustaraztea	Euskara Gazteria	2018-2022



6. Proiektu zehatzak

25.

Euskararen Aktibazio Taldeak hurrengo urteetan martxan jar daitezkeen proiektuen lanketa sakonagoa egin du. Hurrengo orrietan jasotzen dira taldeko kideek proposatu dituzten proiektuak, adibide gisa.

PROIEKTUAREN IZENA	ALTZA POPIE!
HELBURUAK	Herritar guztien parte hartzea bultzatzea eta parte-hartze hori giro euskaldunean izatea, arte forma ezberdinak bateratuz
URRATSAK	Herritarren diagnostiko bat egin (zer behar, nahi, interes daukaten eta herrian sortu).
ERAGILEAK	Herritar talde txikiak sortu (eragile taldeak), herritar adin taldeen ahots eta ekintzaile izango direnak
ERAGINDAKOAK	Nori eragingo die?: Herritar guztiei Zeintzuk izango dira onuradunak?: Herritar guztiak
BEHARREZKO BALIABIDEAK	Guneak sortu herrian ekintzak egiteko (auzolana) 4 gune zehaztu: • Kofradixe • Bekoportala • Kurtxioko Elizie • Antzinako zinema
EPEALDIA	Udan hasteko helburuaz, urtean zehar jarraipena izateko



6. Proiektu zehatzak

PROIEKTUAREN IZENA	BIRINBOLA(KA) AISIALDI TALDEA
HELBURUAK	Euskara bizitzako arlo guztiakaz lotzea, arlo informala gaz batez be. Umeek lehen aukera moduan euskara izatea Umeentzako herri-ekintza guztiaren topalekua izatea (pertenentzia)
URRATSAK	Aisialdi taldea sortu: • Erreferentziazko pertsonal eta elkarteak jarri
ERAGILEAK	Eragile sozialak (elkarte anitzak, gurasoak, norbanakoak) Instituzioen laguntzaz (Euskara Saila)
ERAGINDAKOAK	Helburu moduan ume eta gaztetxoak Baina gurasoen inplikazioa be lortu behar da ekintzen antolaketan
BEHARREZKO BALIABIDEAK	Talde guztiz publikoa, irabazi asmorik bakoa. Baliabide ekonomikoak: ekintzetarako beharrezkoa dena + instituzioen diru laguntza Komunikazio bide potenteak sortu
EPEALDIA	Urte osoan zehar



6. Proiektu zehatzak

PROIEKTUAREN IZENA	GURASOBIDE: Gura eta gora
HELBURUAK	Gurasoek (batez ere, euskaldunek) euskararen balioaren transmisioa ziurtatzea
URRATSAK	Bilerak egin, gutunak, sare sozialak 1. Eskaintza 2. Bilera: inplikazioa agertzeko eta ekintzak planifikatzeko 3. Ekintzak burutu
ERAGILEAK	Eskoletako euskara normalkuntzarako arduradunak (herriko beste taldeak) antolatuko du, ikastetxearen eta udalaren laguntzaz. Gainera, beste herrietan izandako esperientziak kontuak hartuko dira, lankidetzan ariko dira.
ERAGINDAKOAK	Guraso euskaldunei eta euskaldun osoak ez direnei baina proaktiboak direnei Onuradunak izango dira bai gurasoak, bai seme-alabak (beraz, familia mailako proiektua izanik, gizartearengan eraginez)
BEHARREZKO BALIABIDEAK	Udaletxetik: euskara teknikaria, jakitunak Ikastetxeetatik: normalkuntza arduradunak
EPEALDIA	Garatu ikasturte barruan eta praktikan jarri, asteburuetan eta aisialdiko ekintzetan batez ere.



7. Eranskina: parte-hartzaileak

Euskararen Plan Estrategikoaren lanketan, azpian agertzen diren herritar, teknikari eta ordezkari politikoek hartu dute parte:

HERRITARRAK (EUSKARAREN AKTIBAZIO TALDEA)	UDAL-TEKNIKARIAK ETA ORDEZKARI POLITIKOAK
• Leire Zabala • Miren Lauzirika • Imanol Rodriguez • Iñaki Santamarina • Bidatz Bengoa • Miren K. Unzueta • Markel Goikoetxea • Jone Aboitiz • Aintzane Ibarguengoitia • Eneko Bilbao • Bego Laga Urbieto • Xabi Ojinaga • Asier Renteria • Bitor Agirre • Iurdana Txintxurreta	• Idurre Bideguren • Juan Karlos Agirre • Aingeru Astui • Iñaki Lopez • Susana Regidor • Itxaro Zabala • Bego Gangoiti • Nere Mintegi • Olga Bayón • Ainara Etxebarria • Maite Alvarez



7. Eranskina: parte-hartzaileak

29.

EUSKARA AHOLKU BATZORDEKO KIDEAK	UDALEKO EUSKARA BATZORDEKO KIDEAK
• Juan Karlos Agirre • Maite Alvarez • Benito Ibarrolaza • Jon Goikolea • Marimar Hernandez • Lexuri Markina • Asier Abaroa • Maribi Larrinaga • Maite Atxikallende • Anabel Alegria • Albert Zarate	• Juan Karlos Agirre • Benito Ibarrolaza • Aritz Abaroa • Alazne Zumeta • Jon Goikolea
Elhuyar Aholkularitzako teknikariak	• Mayi Etxebarria • Ainara Ibañez